

**Jose Inazio  
Basterretxea**  
Marearen erraietan  
nobelaz hizketan

▣ *Ezpalak*  
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*  
▣ *Makina bat kontu*

**Ihesi**  
Orion  
triatloia

ARGIA

# erdiko kaira

kultura eta aisia

## Marc Biosca

Euskal kantagintzak nazio-identitatearen eraikuntzan izan duen garrantzia aztertu eta gero, ez omen du ulertzen zergatik idatzi den horren gutxi gaiaren inguruan Euskal Herrian. Ikerlari bezain solaskide sutsu eta joria dugu Marc Biosca i Llahí (Lleida, 1980, Zientzia Politikoetan eta Soziologian Lizentziatua). Institut d'Estudis Catalans eta Eusko-Ikaskuntzak emandako bekari esker, laster, katalanez argitaratuko duen ikerlanaz hitz egitera bildu gara.

**KIKE AMONARRIZ**

Argazkiak: Maddi Soroa



2007ko ekainaren 17a

ARGIA

31



# «Narkotiko baten lana egin zuen trantsizio osteko markoak»

Euskal eta katalan kantagintzek nazio-identitatearen eraikuntzan izan duten eragina aztertu duzu. Bateren batek, muturreko nazionalistatzat salatuko zaitu, horregatik bakarrik.

Saiakera honen helbururik behinena, 60-70eko hamarkadetako kantagintzak nazio-identitatearen eraikuntzari egin ekarpena aztertzea izan da. Horretarako marko konparatibo bat erabiliz eta, batez ere, abestien hitzak aztertuz.

Horrelako ikerketekin lotsagorritzen direnei esan beharko genieke, nazioa eta identitatea, gaur egun, oso gai aipatuak direla alor politikoan, nahiz sozialean edo ekonomikoan. Adibide gisa bi gertaera: Sarkozyk identitatearen gaia azken hauteskundeetako eztabaidaren erdigunean kokatu du nazio-identitatearen Ministeritza sortzeko proposamenarekin. Bestalde, Development, Concepts and Doctrine Centre delakoak, txosten bat landu du Britainiako Defentsa Ministeritzarako eta bertan aipatzen du, beste hirurekin batera identitatearena izango dela etorkizuneko funtsezko gaietako bat. Garbi dago beraz, munduko herrial-

de gehienek jorratzen dituztela gai hauek, ez bakarrik euskaldunek edo katalanek.

**La nova cançó versus Ez dok hamairu. Antzekotasun ala desberdintasun gehiago?**

Bi mugimenduak, mendebaldeko musika-panoramaren testuinguruan kokatzen baditugu, alegia, musika, merkatu irizpideen arabera ekoizten hasi zeneko garaia, desberdintasunak txikiak dira. Izan ere, mugimendu hauek, Amerikan eta European zabaltzen ari ziren modak inportatu izanaren ondorioz sortu ziren. Bestalde, biak aro politiko eta historiko bertsuan sortu ziren eta harreman bertsuak zituzten bai beren ekosistema kulturaletikiko –bi hizkuntzen egoera ahula–, nahiz ingurukoekiko –frantziar eta espainiar inposaketa–. Era berean, gero bakarlari gisa arituko den mugimendu hauetako hainbat kidek abesti herrikoiak berformulatzeko, ikuskizunetan dantzak txertatzeko edo ia ahaztuta zeuden txalaparta edo alboka bezalako bertoko instrumentuekin aritzeko kezka eta gogoia azaldu zuten.

Hori bai, bi mugimenduek oso lotura gutxi izan zuten elkarrekin, nahiz eta hasiera batean Laboak nahikoa gertutik jarraitu zuen Katalanian gertatzen zena.

**Laboa aipatu duzula, badirudi euskaraz euskarari buruzko abesti asko dagoela, baina ez dela gauza bera gertatzen katalanez katalanarekiko.**

Saiakeran bereiztu egiten ditut nazio kulturala eta nazio politikoa. Nazio kulturala, batez ere, hizkuntzaren berezitasunaz elikatzen da; hizkuntza izango baita, nazioaren kultur desberdintasunen eraikuntza politikoa ahalbidetuko duen erreminta. Kultur jatorriak, identitatearen dimentsio esanguratsua izaten jarraitzen du eta hizkuntzak funtzio nagusia betetzen du hor.

Euskadin oso modu nabarmenean bultzatu ziren funtzioen artean zeuden hizkuntzaren erabilera normalizatzea eta bere prestigio soziala areagotzeko esparruak garatzea. Baita Herrialde Katalanetan ere, baina hauetan prozesua erabat eten zen arrazoi politikoak zirela medio; País Valenciàko sezesionismo linguistikoa agertzean. Ezagutzen al duzu nafarrera edo zuberera euskara ez direla defendatzen duen norbait? Bada, hemen horixe gertatzen da. Hainbat lekutan hizkuntzaren prestigioa hutsaren hurrengo zen, eta da. Ez da harritzekoa beraz, hizkuntza kantagai duten abestien kopurua horren desberdina izatea batean eta bestean.

**Gauza bertsua gertatzen da lurraldearekin. Euskadi edo Euskal Herria kontzeptuak abesti askotan aurkituko ditugu; ez ordea Herrialde Katalanak. Eraiki al daiteke identitatea lurralde-eremu garbirik gabe?**

Hauxe da bi mugimendu hauen artean dagoen bigarren berezitasunik nabarmenena. Zerikusi zuzena du, bi herri horietan, bideratzen ari ziren prozesu politikoen. Ezin dugu ahaztu Espainiako trantsizioaren ondoren, Herrialde Katalanetan mobilizazio soziala murriztu egin zela eta estatutu-marko berriak narkotiko baten egitekoa bete zuela.

Oso modu lausotuan, herri batu bati buruz zabaldu zen ideia, ameskeria hutsa izatera pasa zen. Kontzeptu honek, literatur esparruan besterik ez zuen iraun osasuntsu samar. Abestigintzan ia ezinezkoa da, metaforarik gabe eta zuzenean, Herrialde Katala-

nak aipatuko dituen letra bakar bat aurkitzea. Ez da hau aldiz, Euskadiren kasua.

Galderari erantzunez uste dut ezetz. Are gehiago, arazo nazionala sozialetik bereizten duena, hain zuzen ere, lurralde baten errebindikazioa da. Pentsa dezagun, esate baterako, ijitoen etnien. Beraiena ez da inoiz arazo nazionalizat hartu, sozializat baizik, nahiz eta beti onartu izan den bere historia eta tradizio propioak dituen etnia bat dela. Zergatik? Inoiz ez dutelako berezko lurralderik errebindikatu.

Europa osoan ez dago nazio batek, ala beste, ala batek baino gehiagok batera errebindikatzen ez duten lur-eremurik. Eta, behar baldin bada, lurraldearengatik muturra hautsi diogu eta hautsiko diogu elkarri. Perejil irlaren pasadizo famatuaz gogoratu besterik ez dugu.

**Nabarra, Orreaga, Almansa... memoria historikoa berreskuratzeko abestiak ala geografía mitiko baten erabilera nazioa berrasmatzeko asmoz?**

Bi prozesuak paraleloak dira. Memoria historikoa ez da bakarrik prozesu indibiduala; bere alderdi kolektiboan, sozialki eta politikoki erakitzen da. Era berean, gogoratu izan dadin, prozesua olibotatuko duten gertaera eta espazio fisikoak behar ditu, eta metanarrazio batean txertatu, "gu"ak biziraun dezan eta eus-

## BEKADUNENTZAKO DEIALDIA

**Kazetaritzaren mundua atsegin baduzu, ARGIAko erredakzioan ikas dezakezu**

Komunikazio arloko edo kazetaritzako 3. edo 4. mailako ikaslea bazara, ARGIAk erredakzio lanetan bekadun moduan aritzeko aukera ematen dizu.

**Eskaintzen dizuguna:**

- Euskarazko kazetaritza edukietan trebatzea.
- Teknologia berrietan eta Interneten aritzea.
- Lan-talde gazte batekin lanean aritzea.

Gurekin lanean aritu nahi baduzu, bidali zure datuak "Erredaktore-bekaduna" erreferentzia adieraziz:

142 Posta Kutxa  
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)  
curriculum@argia.com



karri izango zaizkion erreferentziako puntuak izan ditzen. Hauxe da kontzientzia eta izan nahia duten herri guztiek egiten dutena. Nabadura txiki batekin, langintza horretan botere politikoak erabiltzen dituen instrumentuak oso desorekatuak direla.

Hau da, eskoletako testuliburuetan Almansa ez da agertzen valentziarrak garaituak izan ziren eta Katalunia eta Aragoiko Erresumaren gainbeheraren hasiera markatu zuen eremu fisiko bezala. Gertaera honen osagai politikoa desagertu egin da eta orainaldiarekin edo geroarekin zerikusirik ez duen historiaren pasadizo bat bezala azaldu da. Gauza bera Orreagarekin edo Nafarroarekin... Ikusiko dugu liburuek nola hitz egiten duten beraiei buruz, gaur egungo gatazka egoera marko juridiko berri batean amaitzen denean azkenean horrelakorik gertatzen bada, behintzat.



**Zer nolako garrantzia izan dute kultur eta musika-tradizioek diskurtsoak kantagintzatik eraikitzean?**

Galdera aldrebes hartuko dut, alegia, nola prestigiatu den tradizioa bera, kantagintzari esker. Kultura katalanaren barruan, asko kostatu da tradizioari loturiko elementuak konplexurik gabe plazaratzea. Neurritz kanpoko probintzianokeria batek eraginda, bazirudien kanpoko atxekoa baino hobea zela beti. Bartzelona paradigma bilakatu da zentzu honetan kultur kudeaketari dagokionez, eta egin kontu gurea bezala demografikoki horren desorekatua den herri batean, jarrera honek oso ondorio esanguratsuak dituena. Balorearen eraikuntza soziala Euskal Herrian oso bestelakoa da. Iritzi hau sendotzen lagundu zidan generoetako bat bertsoaren izan zen; kantagintzarekin baso komunikatzaile asko dituen. Iaz BECen egon eta gero, astero egiten den telebista bidezko jarraipena ikusita, bertso-eskolak... zaila da sinesten duela hiruzpalau hamarkada prestigio eskasa zuen genero bat zenik. Berezko ekosistema kultural baten biziraupenak zerikusi handia du, balorazio-estrategia indibidualak nahiz kolektiboak sortzeko ahalmenarekin. Eta honek ez du esan nahi etxekoari "txeke zuria" ematen zaionik. Justu kontrakoa. Pertsonalki uste dut norberarekin lan zintzo eta dezentea bideratzeko dagoen metodo bakarra munduak egiten duenaz kontziente izatea dela, modu horretan zu-

**“Ezagutzen al duzu nafarrera edo zuberera euskara ez direla defendatzen duen norbait? Bada Valentzian horixe gertatzen da”**

reari eta zureenari maila altua eskatu ahal izateko.

**Une jakin batetik aurrera abeslari batzuk erdaraz kantatzen hasiko dira...**

Egia da, baina Euskal Herriak jarraitzen du gehien adostasun nazionalen markoa izaten, edo gutxienez beren erreferente sinbolikoak. Musika-ikuspegi batetik, 80ko hamarkadak inflexio-puntu garrantzitsua markatzen du gure bi herrialdeetan. Gizartean zabaltzen ari den diglosia linguistikoa musika ere harrapatzen du eta katalanez kantatzea “kutre samarra” bilakatu da. Alegia, urrutitik ere ez dago Hertzainak katalan batzuen arrastorik. Arrakasta lortzen dutenak Loquillo edo El Último de la Fila dira. Gauza ez da ez diotela lurraldetasunari kantatzen edo ez dituztela gure herriko elementu sinbolikoak erabiltzen 70eko hamarkadan bezala. Kontua da, beren letretan gai hauek ez dutela inolako lekurik eta darabilten hizkuntza gaztelania dela.

**Estatuaren interbentzioarekiko eszeptikoak izango diren guneak sortu beharra aipatu izan duzu...**

Estatua, errekonbertsio prozesu bikoitza ari da jasaten. Batetik, kudeaketaren eremuan, asko ari da argaltzen, sisteman poro eta akats asko agerian utziz. Bestalde, inoiz ez ziren hain ageriko egin, berau bateratzen duten konbergentzia sinbolikoaren elementuak.

Esparru sinbolikoan eragiten duenean, oso modu bizkorrean eta sotilean egiten du, onarpen nazional bakarreko marko batetik eratortzen diren narratibak eraikiz. Adibide bat: estatu mailan oso indartsuak izan diren *Cuéntame como paso* bezalako telesailak. Horretan, nolabaiteko edulkorazio baten bidez, ekintza historikoak berrordenatu egiten dira, “hispanozentrizidatetik” zirkuluaren koadratura lortuz. Beste bat, *Operación triunfo* litzateke, non xaloa dirudien eremu batek Donostia, Bartzelona edo Malagako gazte batzuk kiroldegiak bete ditzaten lortzen duen, inondik inora gure ingurune kulturetatik pentsatu ez diren musika batzuekin. Kontua da bi formatu hauek –nahiz eta bigarrena une honetan telebista pribatu batera pasa den– berez kulturaren eta eleanitzaren estatu bateko telebista publikoak sortu zituela. ■